

Gaitz guztien



Britainiar Alderdi Nazionalako lider hauek sei delitutan errugabe deklaratu dituztela eta beste sei delitutan epaimahaiak epairik eman ez duela ospatzen ari dira; delitu horien artean daude asilo eskatzaileei “labezomorro” esan izana.

n petzero



“Denek aitortu beharko genuke gure eskubideentzat zein arriskutsua den norbait bere azalaren koloreagatik deshumanizatzea... Eta orobat aitortu beharko genuke intolerantziak izugarritzko gaitasuna duela indarkeria bultzatzeko eta garbiketa etnikoa, genozidioa eta terrorismoa eragiten dituzten baldintzak sortzeko”

—KOFI ANNAN

RUPERT COLVILLE

IAZ, ABUZTUAREN 18AN, ARRATSALDEKO azken orduan, Mahmum Tahirov, 45 urteko errefuxiatu turkomanoa, Tarana haren emaztea eta hamar urteko Araz semea paseeran zebiltzan Leeds-en (Ingalaterra iparraldeko hiria). Etxera itzultzeko bira egin zutenean, hiru zakur zeramatzan auzoko batekin egin zuten topo aurrez aurre.

Ez zen, itxuraz, inolako probokaziorik izan, baina zakurren jabeak zakurrak askatu eta “Segi, segi, segi” egin zien oihu. Lehenago ere gizon hark behin baino gehiagotan egin bide zion eraso hitzez Tarana Tahirovi.

Erasoak hainbat minutu iraun zuen. Tahirovtarrek esan zuten, gizona begira gelditu zen, zutik, besoak gurutzatuta zituela, esku hartzeko asmorik gabe. Ondoren, zakurrei dei egin eta alde egin zuen, eta hantxe utzi zituen lurrean, odoletan, familiako hiru kideak.

Poliziak erasotzailea aurkitzen laguntzeko deia egin zuen jendaurrean, eta Mahmum Tahirov-ek, bien bitartean, honela deskribatu zuen, bertako egunkari batean, bere familiak jasandako sufrimendua: “Esperientzia benetan beldurgarria izan da. Antza denez, gizon horrek gorroto ditu errefuxiatuak”.

Ingalaterrako ekialdeko kostaldean, epaile batek zigor gogorra ezarri zien asilo eskatzaile irakiar bat automobilaz propio aurrean eraman eta airean “trapuzko panpina bat balitz bezala” katapultatu zuten bi gizoni. Gertaeraren ondoren honela esan zion gizon haietako batek neskalagunari: “Denak hil beharko genituzke”. Eta hegoaldeko kostaldean, hiru gizonak, eskuetan burdinazko barrak zituztela, etxe batean sartu eta irakiar bat jipoitu zuten; haien ustez, asilo eskatzailea eta bortxatzailea zen irakiarra. Baina ez zen ez bata eta ez bestea.

Intolerantziak sortzen ditu errefuxiatuak: beren arraza, erlijio, jatorri etniko, iritzi politikoengatik, edo “giza talde” jakin bateko kide izateagatik, edo bestela, gerratik, anarkiatik edo indarkeriatik ihes egiteagatik esesten zaie. Azken batean, intolerantzia motaren batek bultzatzen ditu, oro har, beren herrialdeetatik ihesi atera eta beste lurralde batean babesa eskatzeko erabaki gogorra hartzera.

Zoritxarrez, lurralde horietan ere harrera intolerantea egiten zaie, gehiegitan. Zenbait herrialdetan, “asilo eskatzaile” eta “errefuxiatu” hitzek garai batean begikotasuna eta errespetua eragiten bazuten ere, gaur egun mesfidantzako eta erdeinuzko konnotazioak hartu dituzte, eta bien bitartean, asilo sistema oso helburu eroso bihurtu da iritzi arrazista edo xenofoboak erakutsi nahi dituztenentzat.



© AFP/REUTERS/DP/ALIS-2005



© GLOBALWARE.ORG/C. LUNGBL.ODT/ DP/DEU/1992

Gizarte askotan erroturik dago abegitsu errotuta daude atzerritarrekiko konfiantza eza lehenengoaren gaineratik nabarmentzen

Aurreko abenduan tentsioek eztanda egin zuten Australiako kostaldeko hainbat herritako aldirietan; jatorri askotako gazteek eraso arrazistak egin zituzten.

Eta arazoari aurrez aurre heldu beharrean (edo gutxienez, existitzen dela onartu beharrean), gobernuak, iritzi publikoak oro har eta komunikabideek errua biktimei egozteko joera hartu dute.

Zenbait herrialde industrializatutan, asiloaren kontrako lobbyek laguntza handia lortu dute kanpotik hainbat geraterari esker: Al Qaeda-ren kide diren talde terroristek New York, Bali, Madril eta Londresen egindako ekintza ikusgarriak, Iraken bahituak burua ebakita hil izana, Ekialde Hurbileko enbaxaden kontrako istilu eta erasoak, eta orobat, europar herrialdeetako muturreko predikarien sermoiak.

Alderdi bateko zein besteko estremistek uste dute beste kulturako estremistak direla araua, eta argumentu horretaz baliatzen dira beren jarrerak zuzitzeko.

IRAINTEKO ASKATASUNA

ADIERAZPEN ASKATASUN ARIDAGOKIONEZ, OSO ZAILA DA ONARGARRIAREN onartezinaren arteko mugak zehaztea, eta horren erasugarri izan ziren aurtengo otsailean egun gutxiko tartean izan ziren hurrenez hurreneko hiru epaiketak.

Lehenengoan, Britainiar Alderdi Nazionalako bi lider epaitu zituzten: musulmani eta asiarreri buruz aipamen izugarriak egiten eta asilo eskatzailei "labezomorro" esaten zituztela filmatu

zituzten. Arraza arteko gorrotoa zirikatzeagatik karguetatik erdietan errugabe irten ziren, baina epaimahaia ez zen ados jarri gainerako karguen epaiari buruz.

Handik egun gutxitara, Londresen bizi zen Abu Hamza al-Masri predikari ezaguna espetxeratu zuten hilketara (zazpi urteko zigorra) eta arrazen arteko gorrotora bultzatzeagatik (21 hilabeteko hiru epai) zigortu zuten. Handik aste pare batera, Austrian, David Irving irakasleari hiru urteko zigorra ezarri zioten 17 urte lehenagoko hitzaldi batean Holokaustoa existitu zela ukatzeagatik.

Garai horretan bertan, musulman askok beren erlijioaren kontrako irain izugarritzat hartu zituzten karikatura batzuen argitalpenaren ondorioz, eztabaida latza sortu zen mundu osoan adierazpen askatasunari buruz, eta protesta gogorak izan ziren Ekialdeko Hurbilean.

Askatasun adierazpena distortsioa eragiteko, difamatzeko, gezurrak esateko edo iraintzeko askatasuna al da? Neurri batean, bai. Burura datorrigun edozer gauza esan al dezakegu norbaiti edo zerbaiti buruz? Ez; argi eta garbi, ez.

Herrialde batzuetan onargarriztat hartzen dena beste batzuetan onartezina da. Herrialde batzuetan, pertsona bat iraintzeagatik, difamatzeagatik eta laidoztatzeagatik auzia jartzeko legeak dituzte. Beste batzuek arrazen kontrako gorrotoari



izatearen etika... Baina gizarte gehienetan, sakon edo beldurraren mekanismoa. Bigarren eredu hori bada, errefuxiatuek arazoak izaten dituzte.

edo erlijioaren kontrakoari aurre hartzeko legeak dituzte. Beste batzuek oso lege bereziak dituzte Holokaustoa existitu izana ukatzeko dutenen kontra. Beste batzuek beren nazio ikurrak, herrialdeko bandera esate baterako, erasotzen dutenen kontra egiteko legeak dituzte.

Baina edozer gauza esan liteke –eta jendeak esan egiten du asiloa eskatzen dutenei buruz, bai ikuspegi orokorretik bai pertsonaletik. Baina apenas dago asilo eskatzaileak iraintzea zehazki debekatzen duen legerik. Ez dira arraza jakin bateko kide, eta ez diote denek erlijio berari jarraitzen. Britainiar Alderdi Nazionalako liderrak antzeko argumentuez baliatu ziren asilo eskatzailei labezomorro deitu izanagatik akusatu zituztenean.

30eko hamarraldian propaganda naziazen makinerian jardun zutenak eta 90eko hamarraldian Ruandako irratia eta egunkarietan aritu zirenak epaitu eta kondenatu egin zituzten nazioarteko epaimahaiek. Hala eta guztiz ere, gizadiaren kontrako krimenengatik edo genozidioagatik kondenatu zituzten, ez, ordea, per se arrazakeriaren alde egiteagatik.

Maila bat jaitsi orduko, askoz ere zailagoa da epaitzea eta kondenatzea. Ruandako testuinguruan, tutsiei “labezomorro” deitza haiek zapaltzeko gonbita argia zela pentsatzen zen. Hala eta guztiz ere, Ruandako Mille Collines Irratian hilketarako dei askoz ere zuzenagoak egin zituzten zenbait esatarik.

Britainiar Alderdi Nazionalako liderrak argudiatu zuten ez zutela inor akabatzeko dei zuzenik egin, ez behintzat Abu Hamza al-Masri-k egin bezala, eta horregatik, hari zazpi urteko espetxe zigorra ezarri zioten, eta britainiar liderrak, berriz, garbi irten ziren. Hala eta guztiz ere, jendeak zer sentitzen du labezomorro bat ikusten duenean edo halako batekin gogoratzen denean?

Oso zaila da politikariaren, jendearen eta komunikabideen arteko harremanaren nondik norakoak azaltzea, baina horiek guztiak lotzen dituen zirkulua biziozkoa bihurtzen denean, anarkiara eta indarkeriara garamatzen kiribila egundoko lastertasunaz aska daiteke.

Hori argi eta garbi ikusi zen 2000. urtean Boli Kostan. Ordu arte besoak zabalik hartzen ziren atzerritarrak herrialde hartan, baina, bat-batean, indarkeria xenofoboaren orgiak eztanda egin zuen: errefuxiatuak eta etorkinak beren etxeetatik aterarazi eta erre eta suntsitu egin zituzten. Ez dakigu zenbat errefuxiatu hil ziren. Hala ere, ACNUReko arduradunen ustez, ia gauza segurua da haietako hainbat hil egin zirela.

Eta Jugoslavian –Ekialdeko antzinako blokean zentzu askotan herrialde burujabeentzat hartua zen hartan, milaka senar-emazte misto edo jatorri mistoko bikoteak zituen herrialdean–, zenbait demagogok urte gutxi behar izan zituzten gizarte batek

Zenbait gaztek asilo zentro bat eraso zuten Rostock-en, eskuin muturreko zenbait kidek su eman ondoren; Alemanian 90eko hamarraldian izan ziren istilu ugarien arteko beste bat. Ekintza horren ondoren, milioika alemaniar irten ziren kalera arrazismoaren eta xenofobiaren kontrako manifestazioetan.

behea jo ez dezan beharrezkoa den elkarren arteko errespetuan eta tolerantzian oinarritutako egitura hondora eramateko. Zenbait muga gainditu ondoren, berehala murgildu ziren basakerian eta genozidioan. Jendeak alderdi bat hautatu behar izan zuen.

MUGARIK GABEKO ARRAZAKERIA

EKIALDE HURBILEAN HONELA DIO ESAERA ZAHAR BATEK: “Ni anaiaren kontra; anaia eta ni lehengusuaren kontra; lehengusua eta ni munduaren kontra”. Zoritxarrez, esaera zahar horrek gaur egun ere badu zentzua.

Gizarte guztiek dute arrazista izateko gaitasuna. Oso erraza da erlijio eta politika taldeen artean gatazkak sortzea, baina bereziki erraza da borroka talde etnikoen artean edo “atzerritar” kutsua dutenen artean eragitea. “Beste” ospetsu horiek dira. Gizarte askotan erroturik dago abegitsu izatearen etika, eta askotan, laguntza handikoa izaten da errefuxiatuentzat. Baina gizarte gehienetan, sakon errotuta daude atzerritarrekiko konfiantza eza edo beldurraren mekanismoa. Bigarren eredu hori lehenengoaren gainetik nabarmentzen bada, errefuxiatuek arazoak izaten dituzte.

2002. urtean ACNURek galdeketa bat agindu zuen Moskun; gizonetako afganiar asilo eskatzaileei egin zitzaizkien galderak, eta haietatik %58k onartu zuten eraso arrazistaren bat jasan zutela aurreko urtean zehar; %27k esan zuten ospitalean egon behar izan zutela eta ospitalean batez beste 22 egun igaro zituztela eraso haien ondorioz. Jasandako zaurien larritasuna erakusten digu batez besteko horrek. Kasuen %79k adierazi zutenaren arabera, erasotzaileek “arma soilak, batez ere metalezko kateak, bateak, gas bonbonak eta zerbeza botilak” erabili zituzten. Urtebete lehenago egindako antzeko beste ikerketa baten arabera, Moskun bizi ziren gizonetako afrikarretatik %77k baieztatu zuten erasoak jasan zituztela arrazaren ondoriozko arrazoiengatik aurreko hilabetean zehar.

Antzeko zerbait gertatzen da Ukrainan ere. Herrialde horretan, Vinnitsan (Kiev hegoaldean), ruandar sendagile bat hil zuten, kolpeka, etxerako bidean zela. Ruandar hura errefuxiatuentzako GKE bateko lehendakaria zen, eta erakunde haren sortuntza ospakizunean parte hartu ondoren gertatu zen erasoak. Azken urteetan hamarnaka salaketa egin dira ukrainar polizia-aren aurka, errefuxiatuen eta asilo eskatzaileen kontra egindako erasoengatik; baina horietako salaketa bat bera ere ez da erabaki.

Kroazian, muturrekoen fanzine batean, irakurleei gonbita egin zaie bilatu dituzten “atzerritarren esku dauden taberna eta klub gayak, komunitate ortodoxo serbiarrak, txinatar jatetxeak, izozki dendak eta bestelako dendak”. Helbide horien berri ematen zutenei honako sari hauek eman zitzaizkien: Ku Klux Klana- ren txano bat, Molotov koktel bat eta beisboleko bate bat. Fanzine horretako gainerako edukiak irakurri ondoren, argi dago iragar-ki hura ez zela satira bat.

Maltan, automobil zuri batek eritrear bat esetsi zuen. Bi gizonetako irten ziren automobiletik eta sua eskatu zioten. Une horretan bi gizonetakoak eritrearrari aurpegian kolpeak ematen hasi ziren, eta hainbat haustura eragin zituzten masailezurrean. Eri-



© AFP/A. ZEMINSKI/DP/24F-2001

trearra korrika irten zen komisariara. Automobil zuriak, ordea, bidea itxi zion. Aurpegira botila bat jaurti ziotenean, makurtzea lortu zuen, eta ondoren, geldituta zeuden bi automobilen artean ezkutatu zen. Automobil zuriko gizonak saiatu ziren harrapatzen, baina etsi egin behar zuten.

Mediterraneo aldeko herrialde guztietan, Saharaz hegoaldeko emigranteek eta errefuxiatuek etengabe salatzen dituzte bertako herritarren erasoak, bidegabekeriak, bazterkeria eta esplotazioa -baita sudandarrek ere Egipton eta mendebaldeko afrikarrek Afrika iparraldeko beste herrialdeetan-. Badirudi faktore horiek garrantzizko zeregina bete zutela 2005eko abenduan egiptoar polizia eta sudandar manifestarien artean Kairon izan ziren istiluetan. Istilu haien ondorioz hainbat lagun hil ziren. Egiptoko sudandar askok bertako herritarrek gaizki tratatzen dituztela argudiatzen dute, eta beste herrialde batzuetara era-

Kopuruetatik (gehiegi dira) eta deshumanizazio prozesura



man ditzaten eskatzen dute; horixe zen manifestazio haien aldarrikapena.

Iraken, palestinar errefuxiatuak Saddam Hussein aginpidean zela eman zieten tratu on erlatiboa larrutik ordaindu behar izan zuten; zenbait txostenen arabera, horietako zenbait hil egin dituzte.

Hegoafrikan, Bothaville-n (Estatu Libreko probintzia), 2005eko abuztuan, tokiko agintarien kontra antolatutako manifestazioan zihuan jendetzak somaliar errefuxiatu eta asilo eskatzailez osatutako komunitate txiki batean jarri zuen arreta: komunitate hartako hamar negozi arpilatu eta horietako bi erre zituzten.

Hegoafrikan, hiru marinel ukrainiar hilketagatik salatu zituzten: ezkutuko zazpi bidaiari beren gordelekutik atera -hodi handi batzuetan zeuden ezkutututa- eta itsasora jaurti bide zituz-

ten, itsasontzia Durbango portuan lehorreratu aurretik. Ezkutuko bidaiari haiek tanzaniarrak ziren; haietako bi itota hil zirela uste da, eta beste bostak, berriz, bizirik irten ziren. Itsasontzieta-ko patroiek berek ordaindu behar dituzte legez kanpoko immigranteak aberriratzeko gastuak, eta poliziaren ustez, horregatik bota zituzten ezkutuko bidaiari haiek itsasora.

Eta hegoalderago, Australian, Toowoomba-n (Brisbanetik mendebaldera) birkokatutako sudandar errefuxiatu batek hone-la esan zion kazetari bati: "bertako biztanleek noiznahi jipoitzen naute... Ez dakit zergatik".

EBREN "MEZU KONTRAJARRIAK"

EUOPAR BATASUNAREN BAITAKO ARRAZISMOA ETA XENOFOBIA Monitorizatzeko Europar Zentroaren arabera "indarkeria arrazista... ohiko arazoa eta etenik gabea da, zoritzarrez, EBko

"Zuziak Tolerantziaren alde" kanpainaren ekitaldia Durbanen, 2001ean Hegoafrikan izan zen Arrazismoaren Kontrako Munduko Biltzarraren hasieran.

etiketa negatiboetatik (kriminal, iruzurgile) eta mitoak eraikitzen urrats txikia dago.



estatu kide gehienetan". Era-kunde horrek indarkeria arrazistaren berezitasun nazionaler buruz egindako ikerketa batek dio datu bilketarako sistema aurreratuenak dituzten herrialdeak direla, hain zuzen ere, indarkeria arrazista gehien dutenak, eta horiek istilu arrazista gehien jasaten dituzten herrialdeetat hartzen dira gero eta gehiago, eta hori ez da nahitaez egia.

Erresuma Batuak, esate baterako, oso sistema osoa du (nahiz eta ez dituen asilo eskatzaileen eta errefuxiatuen kontrako krimenak besteetatik bereizten). 2004an ofizialki 35.022 istilu arrazista eta xenofobo erre-gistratu ziren, eta horietatik 4.840 istilutan zaurituak izan ziren. 2003an (urte horretakoak dira eskura dauden azken datuak), Alemanian -datu base askoz ere txikiagoarekin- 11.576 istilu politiko eragin zituzten muturreko eskuindarrek, eta horietatik 2.431 xenofoboak izan ziren (465 bortitzak izan zirela iritziz).

Aipatutako Zentro horrek jarrera negatiboei buruz egindako galdeketa, Grezia lehenengo lekuan edo lehenengoan artean ageri da, era sistematikoan gainera. 2003an esate baterako, greziarren %87k immigranteen "kontratotzat" jotzen zuten beren burua, eta %77 "aniztasunaren kontra agertzen ziren". Dena dela, herrialde horretan, Espainian, Italian eta Portugalen gertatzen den bezala, ez dira krimen arrazistak edo indarkeria arrazistek

buruzko datuak bereizirik bil-tzen.

Are gehiago, indarkeria arrazistari eta xenofoboari buruzko datu estatistikoan bilketa oso eskasa izaten da, eta ez oso formal; eta horrez gainera, datuak biltzen dituzten herrialde gehienek -baita EB barruan ere- zeinek bere sistemak erabiltzen dituzte.

Informazio zehatzena duten herrialdeek ere hutsune handiak dituzte. Datu gehienek, esate baterako, atzerritarrek dute lotura (eta segur asko horien barruan sartzen dituzte asilo eskatzaileak, nahiz eta azken horiek oso gutxitan bereizten diren). Zentroaren arabera, bertako herritar izanik gutxiengo etniko bateko kide direnen esperientzia "ez da

ia existitu ere egiten EBko kide diren estatuetako sistema kriminaleko datu bilketan". Ikerketa arazoak areagotu egiten dira estatu horietako gehienek ez baitute "indarkeria arrazistaren" definizioirik.

2005. urteari dagokion Txostenean, Zentroak adierazi zuen estatuek mezu kontrajarriak igortzen zituztela: "Estatu kideek legeak sartu badituzte ere arraza gutxiengoak [eta] gutxiengo etnikoak eta herritar immigranteak babesteko, EBko zuzentzarauetan adierazten denaren arabera, beste herrialde batzuek immigranteen eta gutxiengoaren eskubideak eta aukerak murrizten dituzten lege eta neurriak txertatzea erabaki dute".

"Sektore askotan langileak behar dira, eta immigranteek, alde zaharretatik, behar horiek aseko lituzkete -zioen txostenak-. Hala ere, zenbait estatu kidek murriztu egin dituzte errefuxiatuek eta babes eskatzaileek lan merkatura sartzeko aukerak, eta beste batzuetan, mezuak bidali dituzte aditzera emanez, lege berrien bitartez, etorkinak ez direla ongi etorriak izango, arrazoi ekonomikoengatik baino gehiago arrazoi politikoengatik. Mezu kontrajarriak bidaltzeko beste modu bat da immigrazioari buruzko politika eta bazterketaren kontrako araudia lotuta joa-tea".

HELBURU OKERRA?

"HERRITARRAKLA SAITUETA HAIEN ARRAZISMOA MURRIZTU egiten al da asiloari buruzko legeak zorrotzen direnean, edo arrazismoa gogobetetzeko eta justifikatzeko egiten dira?", galdetzen dio bere buruari Niklaus Steiner-ek, Ipar Karolinako Unibertsitatearen mendeko Nazioarteko Ikasketa Zentroan, Alemanian, Erresuma Batuan eta Suitzan 90eko hamarraldian errefuxiatuei buruz izan ziren eztabaidak aztertu dituenek.

Azken urteetan asiloari eta immigrazioari buruz onartu den lege kopurua kontuan hartuta, Europako gobernu eta parlamentu askok uste osoa dute galderaren lehenengo parte egia dela, argi eta garbi. Baina ikerlari eta aztertzaile askok guztiz kontrakoa pentsatzen dute: alegia, atzerritarren kontra neurri zorrotzak hartzearen aldeko presio nazionalisten edo populisten aurrean amore ematen badugu -eta zentzu horretan asilo eskatzaileak dira seguru asko helburu errazena-, indar populista eta nazionalista horiek (eta horien artean eskuin muturrekoak) indartuko dituzten mezuak bidaliko ditugu, horiei aurre egin ordez.

Beste era batera esanda, alfer-gurpila sortzen da, egiaztatzen baita arrazismoa eta xenofobia dibidenduak ematen dituzten arazo politikoak direla; beraz, behin eta berriro agertuko dira gai zerrendatan. Horrek, aldi berean, eragina du asilo eskatzaileengan, eta errefuxiatu eta legezko immigranteengan, eta baita herritar atzerritarrengan ere. Urrunegi iritsiz gero, hainbat gizarte segmentu alienatu egingo dira, eta denbora gutxian herri ordenan eragingo duten arazoak sortuko dira. Nazionalistek eta populistek presio gehiago egiteko eta murriztapen gehiago lortzeko erabiliko dituzte arazo horiek, eta horrela hurrenez hurren.

Asaldatzaile arrazistek errefuxiatu eta atzerritarren artean bereizketarik egiten ez duten bezalaxe -ezta herrialde berekoen artean ere-, asiloari buruzko lege berri eta zorrotzenetan sartutako neurri zigortzaile gero eta ugariagoek ere ez dute errefuxiatuen eta immigrante ekonomikoen arteko bereizketarik egiten. Helburu bakarra dute, jendearen sarrera eragozteko, hau da, tirabira politikoak murrizteko kopuruak murrizten dituzte.



“Gauza bat da etengabeko aurreiritziengatik kexatzea, eta oso bestelakoa da horren aurrean zerbait egitea. Lider politikoak, gobernuak eta oinezkoak isilik gelditzen dira, gehiegitan, edo axolagabe agertzen dira intolerantziarekin eta nihilismoarekin topo egiten dutenean. Ezin dugu pasibitatea tolerantziatzat hartu. Hori konplize izatea da: haizea ematen die intolerantei eta babesik gabe uzten ditu biktimak”.

—KOFI ANNAN

ESTATISTIKAK ITXURALDATUZ

KOPURUEKBEHERA EGIN DUTEARGI ETA GARBI. HERRIALDE industrializatuetan asilo eskatzaileen kopuruak behera egin du, oro har; azken bost urteetan erdira murriztu dira, eta oraingoak dira 1987. urteaz geroztik erregistratu diren kopuru txikiak. Hori logikoa da, munduan errefuxiatuen kopurua ere azken mende laurdeneko apalena baita gaur egun.

Asiloaren kopuruaren jokoak, aldiz, ez du inoiz horrenbeste-ko logikarik izan. Europako hainbat herrialdetan, asilo eskatzaileen kopurua benetan handia izan zen 90eko hamarraldiaren hasieran eta amaieran, kontuan hartuta Europan garrantzizko gerrak izan zirela. Balkanetako errefuxiatuen ondoren, afganiarrek eta irakiarrek osatu zuten talde nagusia: hainbat hamarralditan gerra eta errepresioa jasan ondoren, gero eta pertsona gehiagok galdu zuten beren herrialdean etorkizun bideragarria lortzeko itxaropena.

Hala ere, eztabaida politikoa gehien berotu zen estatuetan, ez zen ia halako daturik aipatu, eta datu horiek kopuru igoera horren zergatia erabat azaltzen ezbadute ere, nolabaiteko argitasuna ematen diote gaiari.

Asiloaren gaia itxuraldatzeko tresna bihurtu zen estatistika. 16. orrialdean sakontasunez azaltzen dira prentsak Erresuma Batuan erabili izan dituen taktika arruntenetako batzuk. Baina komunikabideek erreportaje gutxiesgarri ugari egin izanaren giltza distorsio estatistikoa bakar bat izan liteke, eta 90eko hamarraldian behin eta berriz errepikatutako lelo honetan laburbildu: “iruzurtiak dira gehienak”. Esaldi hori betiko gogoan geratu da, ez bakarrik egunkarien gogoan, baita politikari eta herritar gehienek gogoan ere.

Behin eta berriro errepikatutako adierazpen hori estatistika faltsu batean (hau da “asilo eskatzaileen ehuneko 10 baino ez dira errefuxiatu gisa hartzen”), eta errefuxiatu onartuen tasak benetan adierazten duenaren interpretazio guztiz faltsuan oinarritua zen.

Ehuneko 10eko kopuru hori asilo prozesuaren hasierako txandan (“lehen instantziako” prozesua izenez ezagutzen den txandan) errefuxiatu gisa onartu ziren asilo eskatzaileen gutxi gorabeherako batez bestekoa zen, eta bertan ez zen azaltzen prozesuaren kalitatea eta zehaztasuna, ezta gora jo ondoren onartuko ziren asilo eskatzaileen kopurua ere.

Eta orobat ez zuen kontuan hartzen errefuxiatu estatutua lortu beharrean gizatasun estatutua lortzen zutenen kopurua (esate baterako, gerratik edo indarkeria orokorretik ihesi zeuden pertsonak). Hau da, eman dezagun zenbat kriminal dauden zenbaterako krimenak egiteagatik salatu dituztenen kopurua hartzen dela kontuan, epaitzen dituztenen kopurua zenbata beharrean (asilo eskatzaileek kriminal izateko joera dutela “erakustea” izan da beste trikimailu estatistikoa).

Estatistika haietan sartzen baditugu onartutako apelazio eta estatutu humanitarioak (Erresuma Batuan herrialdean bertan

egoteko salbuespenezko baimena delakoa), asilo eskatzaile onartuen tasa %30-50ekoa izan zen herrialde horretan. Eta hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi “gehienak” iruzurtiak direla?

“Iruzurti” hitzak zama handia du. Testuinguru honetan, errefuxiatu gisa onartzen ez diren pertsona guztiak sistemaz neurri gabe eta berariaz baliatzen direla adierazten du iruzurti hitzak.

Eta hori ez da egia.

Babes eskatzaileak, oro har, hiru taldetan banatzen dira: errefuxiatu direnak, errefuxiatu ez direla badakitenak (eta, beraz, sistemaz baliatzen ari direla esan daiteke) eta eremu grisean daudenak.

Azken horiek errefuxiatu asko sortzen dituzten herrialdeetatik datoz –mundu honetako Iraketik, Afganistandik, Kongotik, Sudandik eta Somaliatik-. Eremu griseko pertsonak, baliteke, NBEko 1951ko Hitzarmenaren definizio zorrotzaren arabera, errefuxiatu estaturik gabe gelditzea, baina beren herrialdeak gerrak edo anarkiak astintzen dituztenean, edo beren herrialdea mundu osoan ezagunak diren zapaltzaileen esku gelditzen denean –esate baterako Saddam Hussein edo talibanak-, jabetzen gara zergatik diren errefuxiatuak. Jende hori guztia baliteke berriro etxera bidaltzea, hori egin badaiteke edo etikoa bada, baina ez litzateke inoiz “iruzurti” deitu behar.

Eta alderantziz “iruzurti” bihurtu dira ez bakarrik Erresuma Batuan, baita beste herrialde askotan ere (zenbait aldaerarekin). Komunikabideek iruzurti zirela esan zuten, politikariek iruzurti zirela esaten hasi ziren (edo alderantziz), eta jakina, egoera kontuan hartuta, jendeak benetan iruzurtiak zirela uste izan zuen.

Kopuruetatik (gehiegi dira) eta etiketa negatiboetatik (kriminal, iruzurgile) deshumanizazio prozesura eta mitoak eraikitze-rrats txikia dago. Ikerketek adierazten dute, behin eta berriro, asilo eskatzaileenganako eta “atzeritartzat” hartutako jendearenganako tolerantzia askoz ere ahulagoa dela halakorik ezagutzen ez dutenen artean.

Beste ikerketa batzuek erakutsi dute asilo eskatzaileen eta errefuxiatuen kontrako jarrerak eta eraso materialak “gertatzeko aukera handiagoa dagoela, baldin eta komunikabideetan erakusten diren irudiek zenbait zerbitzutako galerak eta konkurrentzia arazoak (osasunean eta etxebizitzan, esate baterako) erakusten badituzte”.

Intolerantziaren beharrezko kiribil lasterra asilo sistemaren goiko mailetan (politikak formulatzeko zeregina betetzen duten gobernu ministroak) zein behetoetan (immigrazioako funtzionarioak eta aduanetako polizia) dagoenean, ekuazioaren beste atal bat balira bezala hartu behar dira komunikabideak. Jende arruntari ere ezin zaio duen erantzukizuna ukatu. Jendeak politikariak sintoniaz aldatzera behartzeko gaitasuna izan dezake, edo beren intolerantzia mezua urrunago eramatera bultzatzeko.

Izan ere, azken finean, intolerantziari kontra egiteari dago-kienez, gobernuen ekintzak dira garrantzi gehien dutenak. ■

Eskuineko zuri-beltzeko iragarkia (goian, ezkerrean) suitzar alderdi politikoa baten tokiko egoitza batek kaleratu zuen. Honela dio, hitzez hitz: “Suitzarrak beltz bihurtu gara orain!”

- Milioiak asiloaren turistentzat
- Barkamena kriminalei
- Milioiak EBrekin amets egiten dutenentzat
- Herritartasuna denentzat, inolako frogarik egin gabe. Nahikoa da”.

Koloretako kartela (behean, ezkerrean) Suitzan gai berari buruzko kanpaina batean kaleratu zuten, baina mezuak ez dira aurrekoak bezain odoltsuak.